

PASAIKO 24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Gazteria Departamentuak haur eta gazteentzat antolatzen duen programazioaren barruan Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia nabarmentzen da. Aurten 24. edizioa ospatuko da, "zilarrezko ezteiak" betetzeko zorian. Ibilbide luze honek Pasaian jaialdi hau urte sasoi honetan ohiko erreferente bilakatu du.

Aurten hilaren 27an, astelehena, hasi eta aste guztian jarraituko du 30era arte, osteguna, goizez eta arratsaldez 2 ikuskizun desberdinekin.

Dagoeneko 24 urtez jarraian antolatu dugu jaialdia, Tolosako Ekinbide Etxearen laguntzarekin. Jaialdi honi esker, Pasaia haurrek maila handiko nazioarteko ikuskizunez gozatzeko aukera dute. Aurten Norvegia, Argentina, Italia, Brasil eta Suitzako konpainiak etorriko dira.

Astelehenean, hilak 27, Norvegiako Eilersteen & Granados Teater Kompani konpainia etorriko da *Far away* ikuskizunarekin.



Urrundik datozkigun bi pertsonaia, patuaren hari gorriaren bila. Munstroak ezkututzen diren lurralderaino helduko dira. Batzuetan, leku beldurgarri hori guk uste baino hurbilago daukagu, alajaina, gure irudimena dagoen tokian. Izuei aurre egiteko gai bagara, gauza zoragarriak gerta daitezke. Elkarrekin lotzen gaituzten gauza zoragarriak.

Eilertsen & Granados Teater Kompani 2006an fundatu zuten Andreas Eilertsenek (Norvegia) eta Cristina Granadosek (Espainia). Konpainiak antzerki fisikoa lantzen du, eta urte sorta bat badarama arte eszenikoek musikarekin eta antzerkiarekin duten erlazioa ikertzen. E&G taldearen inspirazioak hainbat iturri ditu, besteak beste, Julio Cortázar idazle paregabea, jazz garaikidea eta arte instalatiboa.

Asteartean, hilak 28, Brasilgo Companhia Teatro Por Um Triz izango dugu *Pinocho, Etc. Y Tal* ikuskizunarekin. Gizaki bilakatu nahi zuen egurrezko panpinaren istorioa kontatzen digu, modu originalean, Companhia Teatro Por Um Triz taldearen egokitzapen honek. Aroztegi batean gertatzen da ikuskizuna. Lau arotzek, lan faltagatik eta zailtasun ekonomikoengatik arduratuta, eskaera bitxi bat jasotzen dute: egurrezko panpina bat eraikitzea. Panpina egin ahala, Pinotxoren istorioa datorkie gogora, Gepetok egin zuen panpinarena hain zuzen, eta ikusleei kontatzea erabakitzen dute. Istorioko panpinaren moduan, arotzek eginiko Pinotxoak ere bizia hartzen du. Bere sortzaile-maneiatzaileen eskuetan, Pinotxok mundua ezagutzeko grina adierazten du.



Companhia Teatro Por Um Triz 1996an sortu zen. Campinas Estatuko Unibertsitateko (UNICAMP) Arte Eszenikoetan diploma jasotako aktoreek fundatu zuten, eta haur eta gazteentzat lan egiten du, haurren adimena eta sentiberatasuna errespetatuz betiere, eta elkarlanean aritu da GKE desberdinen eta Kultura eta Hezkuntza Idazkaritzaren proiektu kultural zenbaitekin.



Asteazkenean, hilak 29, Suitzako Guiñol à roulettes konpainiak *Detrás de mi casa* ikuskizuna aurkeztuko du.

Bere lorategian, Bonifacio eta lagunak belarretan etzan dira lainoei begira. Handik gertu, hiri griseko gobernadoreak asfaltatzeko eta eraikitzeko agindua ematen du. Pim eta Pam langileek ekin diote lanari eta dena deuseztatzeari. Hiria ari da hazten, loreak desagertzen, garabiaren mehatxua handitzen.

Paulette andereak bere arma sekretua prest dauka: txokolate katilu beroa. “Gure etxe atzean” lehia izango da, nola ez, baita barreak eta samurtasuna ere.

Le Guignol à Roulettes konpainia 1981an sortu zuten Pierre-Alain Rollek eta Marie-Dominique San Jose-Benzek. Azken hau da orduz geroztik antzerkiaren zuzendari artistikoa. Izenari zor, (Patinen edo gorpilen gaineko giñolak) ibiltaria da konpainia. “Giñolaren pertsonaiari hartu diogu berezko zaion askatasuna eta konformismo eza. Haurrengandik gertu dagoen antzerkia defendatzen dugu, askea eta irudimentsua”. Le Guignol à Roulettes Friburgon kokatzen da, Suitzan alegia, eta herrialde horretan egiten ditu emanaldi gehienak.

Ostegunean, azaroak 30, bi konpainia desberdin izango ditugu, bata goizez eta bestea arratsaldean. Goizean, Argentina eta Italiatik Campaña de Verónica González etorriko da *Érase una vez..dos pies* ikuskizunarekin.



Verónica Gonzálezek bi hanka ditu, mundu honetako pertsona gehienek gisara... Bere oinak, ordea, bereziak dira oso: pertsonaia groteskoak islatzen dituzte, absurdoaren eta poesiaren artean dantzan dabiltzan istorioetan bizi diren izakiak alegia. “Hezur-haragizko txotxongilo” horiek, musikaren laguntzaz, umorez, fantasiaz, erritmoz eta kolorez betetako antzezpena eskainiko digute. Keinuzko antzerkiaren nazioarteko ikuskizuna da honako hau, adin guztietarako aproposa. Figura antzerkia, non azpimarratzekoa baiten gorputzeko hainbat zati

txotxongilo moduan erabiltzeko abilezia: oinak, belaunak, eskuak, e.a. Ikuskizun dibertigarria benetan, haur zein helduen gozagarri.

Verónica González artista eklektikoa dugu. “Oin bat taulan jarri bezain pronto” atzematen du ikusleen arreta. *Antzerkia oinekin* teknikari esker, Verónicak bere pasio nagusiak uztartzen ditu: antzerkia, txotxongiloak, musika, keinuzko mintzaira eta ikuslearekiko bat-bateko harremana. Harrigarria da emakume bakarlari hau taula gainean ikustea, apartekoa da haren iaotasuna, naturaltasuna. Eszenatokia betetzen du bere gorputzetik irteten diren pertsonaia ezin bereziagoekin: oinekin, eskuekin, hankekin, buruarekin, eta bereziki, bihotzarekin. Arte modu bakarra bezain dibertigarria, mundu osoko ume eta ez hain umeek erruz txalotu dutena.

Ostegun arratsaldean Brasilgo Teatro de la plaza konpainiak *Historias con desperdicios* ikuskizuna aurkeztuko digu.

Hondakinen “birziklatzaile” batek, bidean barrena topatzen dituen hondakinak hartu, eta eszenatoki eder bilakatzen ditu. Ikusleen aurrean egin ere. Oihalak, kartoizko kaxak, latak eta plastikozko

estalkiak ikuslearen aurrean eraldatzen dira, ibai emaritsuak banatzen dituen bi herrialdetan hain zuzen. "Kartoilaria" aktore bihurtzen da ondoren, eta bizia ematen die bere izakiei.

Modu honetan ezagutuko dugu poeta xarmant eta liluragarri bat, eta maitasunez eta itxaropenez betetako mezua utziko digu eskuetan.

Historias con desperdicios lanak asmatutako hizkuntza baliatzen du, baina erraz ulertuko du ikusleak, izan ere, hitz ezagunak erabiltzen baititu soinuaren eta ahotsaren jolasa sortzeko. Onomatopeiak ere azalduko dira.



Ikuskizunak lantzen dituen edukien artean badira, besteak beste, ingurugiroari eta ekologiari buruzkoak (jasangarritasuna, izadiaren erabilera eta zainketa, aniztasuna, baliabide naturalen birziklapena eta probetxua), prestakuntza etikoari buruzkoak (liskarrak konpontzeko eta erabaki kolektiboak hartzeko premiazkoa den elkarrizketa) eta arteari buruzkoak. Zerrenda horri ikuslearen irudimenak ahalbidetzen duen guztia gehitu behar zaio.

Konpainia Argentinan sortu zen 1983an, Buenos Aires hirian zehazki. Ipuin herrikoiak ditu gehienbat bere errepertorioan. 2000. urtean, Sao Paulon kokatu zen taldea, eta nazioko eta nazioarteko 50 jaialdi baino gehiagotan ordezkatu du Brasilgo herria.

Aste osoan emanaldiak goizeko 11:00etan izango dira, ostegunean izan ezik, bi ikuskizun izango baitira, bata goizez eta bestea arratsaldez. Udalerriko ikastetxeetako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasle guztiak joango dira. Guztira ia 550 hurrek hartuko dute parte. Emanaldiak San Pedroko Udal Aretoan izango dira.